

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Derioko Udala****Derioko Udalak 2021erako lan-eskaintza publikoa onartzea**

Derioko Udaleko Gobernu Batzordeak, 2021eko martxoaren 16an egindako bileran, onartu zuen, besteak beste, honako ebazpena (77/10/2021-1)

Lehenengoa: Derioko Udalaren 2021eko Enpleguaren Eskaintza Publikoa onartzea. Horrek barne hartzen ditu honakoak:

1. Administrazio Orokorreko Eskalako plaza bat, Administrazio Azpieskalakoa (30), C1 taldea, 22. Destino maila, 3. Hizkuntza eskakizuna duena, eta 2016ko abenduaren 22ko derrigortasun data duena.
2. Administrazio Orokorreko Eskalako plaza bat (34), C1 taldea, 22. Destino maila, 3. Hizkuntza eskakizuna duena, eta 2022ko abenduaren 31ko derrigortasuna data duena (Barne sustapena Derioko Udaleko langileekin).
3. Administrazio Orokorreko Eskalako plaza bat, Azpieskala Teknikoa (35), A1 taldea, 26. Destino maila, 3. Hizkuntza eskakizuna duena, 2020ko abenduaren 30eko derrigortasun data duena.
4. Administrazio Orokorreko plaza bat, Azpieskala Teknikoa (36), A1 taldea, 26. Destino maila, 3. Hizkuntza eskakizuna, 2020ko abenduaren 30eko derrigortasun data duena. (Barne sustapena Derioko Udaleko langileekin).
5. Administrazio Bereziko eskalako plaza bat, Goi mailako azpieskala Teknikoa (37), A1 taldea, 26. Destino maila, 3. Hizkuntza eskakizuna duena eta 2020ko abenduaren 30eko derrigortasun data duena. Fisika Hezkuntzan Lizentziatua.
6. Administrazio bereziko eskalako plaza bat, Erdi mailako Teknikariaren azpieskala (38), A2 taldea, 25. Destino maila, 3. Hizkuntza eskakizuna duena eta 2020ko abenduaren 30eko derrigorrezko data duena. Animazio soziokulturaleko (eta turismoko) goi mailako Teknikaria.
7. Administrazio Bereziko plaza bat, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Udaltzaingoa-ren klasea (39), ofizialorde kategoria, C1 taldea, 22. Destino maila, 3. Hizkuntza eskakizuna duena, 2022ko abenduaren 31ko derrigortasun-data duena. (Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren beste kidego edo zerbitzu batzuetako funtzionarioek hornitzea).
8. Administrazio Bereziko plaza bat, Zerbitzu Berezien azpieskala, Udaltzaingoa-ren klasea (40), Lehen Agentearen Kategoria, C1 Taldea, 20. Destino maila, 2. Hizkuntza eskakizuna duena, derrigortasun-datarik gabe. (Barne sustapena Derioko Udaleko langileekin).

Bigarrena: Enpleguaren Eskaintza Publikoa argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Ebazpen honek amaiera ematen dion administrazio bideari, baina bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da administrazio-organo beraren aurrean, hilabeteko epean, berau jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1 eko 39/2015) 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa ere jarri ahal izango da egoki den Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko apean, berau jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautu duen uztailaren 13ko 29/1998 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Hori gorabehera, interesdunek egoki irizten dituzten baste errekurtso guztiak ere ezarri ahal izango dituzte.

Derion, 2021eko martxoaren 18an.—Idazkaria